| | |
|---|---|
| **<u>4. ERANSKINA:</u> OINARRI ARAUTZAILEAK, TOLOSAKO IKASTETXEEN IGERIKETA KANPAINARAKO DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO** | **<u>ANEXO 4:</u> BASES REGULADORAS PARA EL OTORGAMIENTO DE SUBVENCIONES PARA LA CAMPAÑA DE NATACIÓN DE LOS CENTROS ESCOLARES DE TOLOSA.** |

| | |
|---|---|
| **1. XEDEA**<br><br>Agiri honetako oinarrien xedea da prozedura arautzea Tolosako lehen hezkuntzako ikastetxeek urtero egiten duten igeriketa kanpainarako diru-laguntzak eskatzeko eta emateko.<br><br>Igeriketa ikastaroak lehen hezkuntzako 1., 2. eta 3. mailako ikasleei zuzenduta daude eta izen-ematea ikastetxeak formalizatuko du.<br><br>Desgaitasuna duten ikasleen kasuan, eskolarizatuta dauden bitartean kanpaina barruan egongo dira, eta ikastaroak egin ahal izango dituzte. | **1. OBJETO**<br><br>Es objeto de las presentes Bases la regulación del acceso y concesión de ayudas económicas a centros escolares de enseñanza primaria de Tolosa para el desarrollo de la campaña anual de natación escolar.<br><br>Los cursos se dirigen a escolares de 1º, 2º y 3º de enseñanza primaria que realicen la inscripción a través del centro escolar.<br><br>Los alumnos/as con discapacidad podrán disfrutar de los cursos de la campaña mientras sigan escolarizados. |
| **2. IKASTETXE ONURADUNAK**<br><br>Diru-laguntzak jasotzeko, ikastetxeek ondorengo baldintzak bete beharko dituzte:<br><br>• Egoitza Tolosan izan behar dute.<br>• Ikastetxearen bidez eman behar da izena, Aldundiak Eskola Kirolean izena emateko jarritako aplikazio informatikoa erabiliz<br>• Diru-laguntzaren eskaera formala egin. | **2. CENTROS ESCOLARES BENEFICIARIOS**<br><br>Podrán acceder a estas ayudas los centros escolares de que cumplan los siguientes requisitos:<br><br>• Estar situados en el término municipal de Tolosa.<br>• Haber realizado la inscripción a través del centro escolar en la aplicación informática de inscripciones de deporte escolar de Diputación.<br>• Formalizar la instancia o impreso de solicitud de subvención. |
| **3. IKASTETXE ONURADUNEN BETEBEHARRAK**<br><br>Ikastetxe onuradunak honako betebehar hauek izango ditu:<br><br>✓ Foru Aldundiaren aplikazio informatikoa erabiltzea taldeen izena emateko.<br>✓ Maila bakoitzeko ikasleen zerrenda irailaren 30a baino lehen aurkeztea Usabalen.<br>✓ Emango zaizkien txanda-egutegia eta ordutegia onartzea.<br><br>✓ Ikastetxeak ordezkaria izendatu beharko du, eta ordezkaria izango da igeriketa kanpainarekin loturiko auziez Udaleko kirol-zerbitzuarekin eta KIROLZERekin mintzatuko dena.<br><br>✓ Talde edo maila bakoitzak irakasle batek lagunduta joan beharko du Usabalera, eta aldageletan irakasleak zaindu beharko ditu ikasleak, bai sartzean, bai irtetean.<br><br>✓ Ikastaroa amaitutakoan (15 jardunaldi), ikastetxeak KIROLZERi jasotako zerbitzua ordaindu beharko dio. Ondoren, Udalari ordainagiria aurkeztu beharko dio, diru-laguntza justifikatzeko.<br>✓ Talde bakoitzeko ikasle kopurua ikasleen trebetasunaren araberakoa izango da, eta trebetasun-maila kanpainako hezitzaileek neurtuko dute.<br>✓ Behar izanez gero, hainbat ikastetxetako 3. mailako ikasleak batu daitezke, taldeak osatzeko. | **3. OBLIGACIONES DEL CENTRO BENEFICIARIO**<br><br>El centro escolar beneficiario tendrá las siguientes obligaciones :<br><br>✓ Inscripción de los grupos en la aplicación informática de la Diputación Foral.<br>✓ Presentar en Usabal antes del 30 de septiembre el listado de alumnos de cada curso escolar.<br>✓ Aceptar el calendario de turnos y horarios que les son asignados.<br>✓ El centro escolar designará un/a representante del mismo que será el/la interlocutor/a con el Servicio de Deportes del Ayuntamiento, así como con KIROLZER, en todos las cuestiones que afecten a la campaña de natación escolar.<br>✓ Cada grupo-curso acudirá a las piscinas de Usabal acompañados del/a profesor/a quien se ocupará de atender a sus alumnos/as en los vestuarios tanto al entrar como al salir.<br>✓ Una vez finalizado el curso (15 jornadas) el centro escolar abonará a KIROLZER la factura correspondiente por el servicio, factura que deberá presentar al Ayuntamiento para justificar la subvención.<br>✓ El número de alumnos/as por grupo dependerá del nivel de estos/as y lo determinarán los/as monitores/as de la campaña.<br>✓ Cabe la posibilidad de juntar alumnos/as de 3º de diferentes centros para configurar los grupos. |

| | |
|---|---|
| **4. INSTALAZIOAK** | **4. INSTALACIONES** |
| Tolosako ikastetxeek Usabaleko igerilekuak erabiliko dituzte ur-jardueretarako, horretarako doan utzita.<br><br>Urrian hasiko da igeriketa kanpaina, goiz eta arratsaldeko txandetan, baldin eta aipatutako egunean ekingo dioten taldeek lehenago izena eman badute. | Los centros escolares de Tolosa utilizarán las piscinas de Usabal para el desarrollo de las actividades acuáticas, cedidas gratuitamente a tal efecto.<br><br>Las actividades se iniciarán en octubre, en turnos de mañana y tarde, siempre y cuando se haya realizado con antelación la inscripción de los grupos que la inician en la citada fecha. |
| **5. DIRU-LAGUNTZA ZEHAZTEKO IRIZPIDEAK** | **5.CRITERIOS PARA DETERMINAR LA SUBVENCON** |
| Kontuan izango da Tolosako lehen hezkuntzako hiru ikastetxeetako ikasleen kopurua ikasturte bakoitzeko igeriketa kanpainan.<br><br>Parte-hartzaile bakoitzari balio bat emango zaio eurotan, deialdi bakoitzean ikastetxeen igeriketa kanpainarako zehazten den aurrekontu-partidaren arabera.<br>Desgaitasuna duten ikasleen kanpaina ere horrela finantzatutako da, hau da, parte-hartzaile kopuruaren eta haietako bakoitzari eurotan esleitu zaion balioaren arabera. | Se tendrá en cuenta el número de alumnos/as participantes de los tres centros de enseñanza primaria de Tolosa en la campaña de natación de cada curso escolar.<br><br>Se atribuirá un valor en euros a cada participante de acuerdo a la partida presupuestaria para la campaña de natación escolar determinada en cada convocatoria.<br>La campaña para los niños y niñas con alguna discapacidad se financiará de la misma manera, es decir en función de la participación y del valor en euros asignado a cada participante. |
| **6. DIRU-LAGUNTZEN ORDAINKETA** | **5. ABONO DE LA SUBVENCIÓN** |
| Diru-laguntzak ordainketa bakarrean emango dira; horretarako, eskaera-inprimakia aurkeztu behar da eta, horrekin batera, jarduerari dagozkion fakturak eta horien ordainagiriak.<br><br>Desgaitasun duten ikasleen kasuan, astean behingo ikasturte osorako ikastaroen kasuan, gauza bera egin behar da. | Las subvenciones serán abonadas en un solo pago. Se realizará previa presentación del impreso de solicitud de subvención junto a las facturas correspondientes a la actividad y la justificación del abono de la misma.<br><br>Lo mismo en el caso de los cursos para alumnos/as con minusvalía que acuden una vez por semana durante todo el curso escolar. |
| **7. DIRU-LAGUNTZEN KONTROLA** | **7. CONTROL DE LAS SUBVENCIONES** |
| Udalak eskubidea izango du beharrezkotzat jotzen dituen egiaztapen guztiak egiteko, ziurtatu ahal izateko datuak egiazkoak direla eta diru-laguntzak behar bezala erabiltzen direla. | El Ayuntamiento se reserva el derecho de hacer cuantas comprobaciones considere oportunas para verificar la fiabilidad de los datos y la correcta utilización de las subvenciones. |